

SARRERA

Gure ideia ikasleek ikasketetarako behar dituzten azalpenak eta laguntza lortzeko aplikazio bat sortzea da. Aplikazio horretan, erabiltzaileek adierazi ahal izango dute zein arlotan edo ikasgaitan duten ezagutza maila ona, adibidez, DBHko 4. mailako matematika menperatzen dutela eta klase partikularrak emateko prest daudela.



Era berean, ikasgai jakin batean laguntza behar duen ikasleak pertsona horrekin harremanetan jarri ahal izango da, eta online klase partikularrak jaso, horren truke ordainketa eginez. Azken finean, klase partikularrak izango dira, baina modu digitalean, ematea eta jasotzea askoz errazagoa izan dadin.

Aplikazio honek aukera emango du, alde batetik, laguntza emateko prest dagoen jendeak lana aurkitu eta dirua irabazteko, eta, bestetik, laguntza behar duten ikasleek pertsona egokiak aurkitzeko. Izan ere, askotan zaila izaten da inguruan norbait ezagutzea laguntza emateko edo jasotzeko prest dagoena. Plataforma honen bidez, aukera gehiago eta erraztasun handiagoa eskainiko dira bi aldeentzat.